

E DOKUMENTUA
IRAUNKORTASUN EKONOMIKOARI BURUZKO
TXOSTENA

ZALDIBIAko HAPOaren URTEABEL-AZPI 2.sektoreko PLAN PARTZIALA
HASIERAKO ONARPENA

E DOKUMENTUA

IRAUNKORTASUN EKONOMIKOAREN MEMORIA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30eko garatzeko premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren 31, 1, f) artikuluan xedatutakoarekin bat, iraunkortasun ekonomikoari buruzko memoria aurkezten da.

Memoria honetan, behar diren azpiegiturak ezartzeak eta mantentzeak edo horren ondoriozko zerbitzuak abian jartzeak eta emateak eragiten dien hirigintza-jardunak ogasun publikoetan duen eragina haztatuko da. Jarduera horrek ekoizpen-erabileretara bideratutako azalera eta lurzoruaren egokitzapenean duen eragina ere.

Plan honen edukiak finkatu egiten du eremuan lehendik dagoen eraikigarritasuna, hau da, eraikiak, bere jarduerak matxan kontutan hartuta. Horrek ez du ekarriko azpiegitura berririk ezartzea, ezta eremuan dagoeneko garatutakoak ez diren zerbitzuak ematea ere.

Lagapen publikoen bidez lortutako lurzoruak publikoak ziren lehen, eta, beraz, Udalak jada mantentzen ditu. Eremuak zerbitzu-azpiegitura guztiak ditu, dauden jarduerak behar bezala funtzionatzeko.

Beraz, aldaketa honek ez du ekarriko udal-ogasunerako aurreikusitako beharrianak handitzea.

Area urbanizatzeko proiektu bat egingo da, Zaldibia ibaiaren erriberako ingurumena lehengoratzeko estrategia bat prestatzean oinarrituko dena.

Bestalde, dokumentu honek proposatzen du eremuko eraikinen egungo egoera lehengoratzeko, hau da, egungo egoeran finkatzea proposatzen du, orain arte bezala beren jarduera gauzaten jarraitu ahal izan dezaten.

Ildo horretan, HAPOk proposatzen zuen egoerak, jabe txikien eremu baterako, arrisku larrian jartzen zuen eraikinen eta jardueren iraunkortasuna; izan ere, antolamenduz kanpoko erregimenean zeudenez, lehendik zeuden eraikinak segurtasun-gabezia juridikoko egoeran geratzen ziren, laguntzarik edo finantzaketarik jasotzeko aukerarik Gabe..

Horrela, uler liteke area osoa erosi eta garatuko lukeen sustatzaile handirik ez dagoenez, eta hori oso gertagaitza denez, jabe txikiak babesik gabe uzteaz gain, eremua degradazio-prozesu batean sar daitekeela epe ertainean, eta horrek Ogasun Publikoaren diru-sarrerak gutxitzea ekarriko luke.

Aipatutako inbertsioa hobekuntza nabarmena da udalerriko espazio libreen sarearen konfigurazioan, eta ez du inbertsio-erakunde handirik; beraz, Plan Partzialaren garapenean iraunkortasun ekonomikoa dagoela ondorioztatu da.

2023ko abendua
Amaia Albeniz Goikoetxea
Ainhoa Guerras Alfonso
Hiri.Dunak estudioa